

FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Proiektua aurrera eramateko, hainbat bazkide eta hornitzaile garrantzitsu beharko ditugu. Bakoitzak bere ekarpen baliotsua egiten duelako.

1. **Eguzki-panelen hornitzailea:** gure produktuak behar duen oinarritzko osagaia eskaintzen dugu, hau da, eguzki-panel txiki eta eraginkorrak.
2. **Mugikor - zorroen fabrikatzailea:** zorroaren egitura finikoa sortzen du, gure diseinuari eta material jasagarriari jarraituz.
3. **Diseinatzaile industrial edo produktuen diseinatzailea:** da, eta bere lana produktuak estetika erakargarria eta funtzionaltasun egokia izatea lortzea da.
4. **Marketin eta publizitate bazkidea:** gure produktua ezagutzera ematen laguntzen du sare sozialen, publizitate kanpainen eta hainbat webgunen bidez. Horrela, gure irudiak eta mezuek jende gehiagorengana iristen dira, eta gure marka indartzen laguntzen dute.
5. **Banaketa eta salmenta-bazkideak:** dendetan, online plataformetan, edo mugikorraren osagarrietan espezializatutako guneetan salmenta bideratzen dute.
6. **Finantza-bazkidea edo inbertitzailea:** proiektua garatzeko hasierako baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu. Horrela, proiektuaren garapena sustatzeko lehen pausoak ematen dira.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

- **Eguzki-panelen hornitzailea** funtsezko elementua da gure produktuen funtzionamenduan. Kalitatezko panelik gabe, gure produktuek ez lukete beren helburua beteko.
- **Fabrikazio-bazkidea** funtsezkoa da kalitate ona eta ekoizpen iraunkorra bermatzeko. Zorroak erresistenteak izan behar dira eta eguneroko erabilerarako egokiak izan behar dute.
- **Diseinatzaileak produktu erakargarria**, arina eta ekonomikoa sortzen laguntzen du, bezeroek benetan eroso eta gustura erabil dezaten.
- **Marketin-taldea** beharrezkoa da gure marka ezagutu dadin, bezeroak erakartzeko eta gure produktu berritzailea merkatuan kokatzeko.
- **Banaketa-bazkideak** funtsezkoak dira produktua bezeroarengana iristeko; haien bidez gure produktua merkatuan zabalduko da.
- **Finantza-bazkidea** proiektua abian jartzeko behar diren baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu, inbertsioa, ekoizpena eta publizitatea ordaintzeko.